

Euskal Herriko Gazte Sozialisten Topaguneak lan egunak izan zituen ardatz. Langile kulturaren hedapenean eta prozesu sozialistaren lanketa sakontzea helburu, eduki politikoak lantzeko tartea ere izan zen. Ostiral arratsaldean hasita, hitzaldiek hartu zuten Topaguneko asteburuko egitaraua. Hala, gazte, genero eta hezkuntza problematikak izan zituzten hizpide lehenengo, eta gero, gazte antolakundeen inguruan mintzatu ziren, Jarraikotasuna eta hausturak izenpean. Larunbatean, aldiz, prozesu sozialista zein koiuntura ekonomiko globala eta sozialismoaren eraikuntza aztertu zituzten ehunka gaztek, hainbat hizlariren eskutik.

EKAINAK 14, OSTIRALA

16:00etan hasi ziren hitzaldiak: **Gazte Koordinadora Sozialistako** kide batek gazte problematika landu zuen Esklabak eraikinean; leku berean, hezkuntza problematikaren inguruan jardun zuten **Ikasle Abertzaleak**eko bi kidek, eta Azpeitiko Gaztetxean, **ITAI**Ako kide bat aritu zen genero problematikaren inguruan hizketan.

Gazte problematika

“Gazte problematika ez da analisirako objektu neutral bat, **esku hartze politikorako eremu bat** da”. Baieztapen horrekin hartu zuen hitza GKSko kideak. Hala, gazte problematikaren gaineko analisia eta esku hartzea posizio subjektibo zehatz batetik egiten dela nabarmendu zuen; GKS, prozesu sozialistaren artikulaziorako ikusmiratik abiatzen ditu analisia eta esku hartzea.

“Irizpide biologiko baten arabera definitzen dute zer den gaztea, zaharrari kontrajarritatako elementu modura”. Ulerkera horrek, baina, **gazteriak botere burgesarentzat betetzen duen funtzioa** ezkututzen duela azaldu zuen hizlariak. Horren aurrean, gazteriak botere burgesarentzat betetzen dituen funtzio sozialak aztertu behar direla adierazi zuen, horiek definitzen baitute gazte problematika zapalkuntza modalitate espezifiko modura. Hiru dira funtzio sozial horiek: **lan indarraren devaluazioa, despolitizazioa eta belaunaldi berrien ziklo formazioa**.

Zapalkuntza modalitate horren aurrean, “GKSren proposamen politikoak **proletalgoaren autoantolaketa eta independentzia politikoa** ditu oinarri”. Esku hartzerako eremu horretan eraginez, Euskal Herrian goranzko joeran dagoen “prozesu sozialista elikatuko duen **subjektibitate politikoaren hedapen eta artikulazioa**” bilatzen dute GKSko kideek.

Bestalde, azterketa geopolitikoa eta geostrategikoa azpimarratu zituen hizlariak. Izan ere, “ofentsiba kapitalistak gurean nola lur hartzen duen ezagutzeko eta sortu

nahi ditugun **instituzio proletarioen egokitasuna eta eraginkortasuna erreala** izan dadin" ezinbestekoa dela adierazi zuen. Hala, **"kultura propioa, instituzio propioak eta komunitatearen indartzea"** dira norabide horretan martxan jarritako lan-lerroak, baina ez bakarrik; sindikalgintza integralaren beharraz ere mintzatu zen koordinadorako kidea.

Genero problematika

ITAIako kideak hiru bloke landu zituen hitzaldiaren bidez: **genero problematikaren kontzeptualizazioa**, problematika horren **adierazpen kulturalak**, eta **ondorio politikoak**. Lehenengo blokean hainbat kontzeptu desberdinu eta bereizi zituen hizlariak. Alde batetik, genero zapalkuntza "emakumeei orokorrean eragiten dien zapalkuntza" mota gisa definitu zuen, non "adierazpen matxistak edota sexu erasoak" sartzen diren. Dena den, oinarrian dagoen zapalkuntza baten azaleratzea izango litzateke hori guztia. **Oinarrizko zapalkuntza**, baina, "genero problematika" dela azaldu zuen, eta hor, "emakumeei pairatzen duten zapalkuntzaren azaleko adierazpenen azterketa baino, **zapalkuntza horren erroa den dominazio burgesaren egitura** aztertu" behar dela esan zuen.

Azken puntu horri helduta, "langile klaseak bere praktika burgesiaren boterearekiko aurkakotasunean pentsatu" behar duela nabarmendu zuen: "Problematika soziala proletarioaren posiziotik aztertu behar da". Horrez gain, zalantzan jarri zituen feminismoan hegemonikoak diren ekoizpenaren eta erreprodukzioaren definizioak: gainbalioa sortzen duena izango litzateke **eremu produktiboa, eta erreproduktiboa**, lan indarra ekoizteko beharrezkoak diren jardura guztiak barnebiduko lituzke. "Lanaren banaketa sexuala kapitalaren beharren arabera erreproduzitzen dela" ere azpimarratu zuen

Bigarren blokean, aldiz, hiru gai landu zituen: **lan indarraren debaluazioa, emakume proletarioen despolitizazioa, eta emakumeen zapalkuntza, zatiketarako** auzi modura. Hala, emakumeen debaluazio kulturala izan zen aztergai. Burgesiak langile klasea kolpatzeko nola baliatzen duen aztertu zuten; langile klasearen barnean zatiketak gauzatzen ditu, eta emakumea feminismoaren auzira zokoratzen du.

Azken blokean ondorio politikoak atera zituen mahaira, eta bereziki nabarmendu zuen **"klase ertainaren feminismoaren ukazioaren beharra"**. Feminismo hori "ideologikoa" eta "aldebakarrekoa" dela azaldu zuen. Izan ere, kapitalismoa alde batean kokatzen du, eta bestean patriarkatua. Feminismo proletarioaren beharra

aldarrikatu zuen ITAIAko kideak: esan zuen **prozesu sozialistarekin lotuta agertu behar duela feminismoak**, hori baita emakume langileen askapenerako baldintza.

Hezkuntza problematika

IAko bi kidek azaldu zuten, **hezkuntza esparruan langileriak bere osotasunean aurkitzen dituen erronkek osatzen dute hezkuntza problematika**. Hala, hezkuntza ez da bereizita dagoen auzi bat, ekoizpen harremanen arabera instituzio bat baizik; **gainditu beharreko instituzioa**. Izan ere, hezkuntzaren helburu nagusia lan indarraren ekoizpena eta formazioa dira, baita disziplina eta sumisiorako tresna modura funtzionatzea ere.

Langileriak ez du hezkuntza aparatua kontrolatzen, nahiz eta bertan parte hartzen duen hamaika modutan; soldataren dinamikaren bidez, esaterako. Hala, hezkuntza eremuan ere **programa politiko proletario baten beharra** mahaigaineratu zuten, klase batasuna eta independentzia printzipioak ardatz izango dituenak. Horrekin batera, proletarioaren bloke politiko propioa, biurgesiari botere kuotak konfrontatuko dizkiona. Horretarako analitiko abiaturako eta potentzia estrategikoa duen bi helburutan oinarritutako lanildoak proposatu dizkigute, biurgesiari boterea disputatuko dietenak eta langileriaren bizi baldintzak hobetzera bideratuta daudenak.

Gazte antolakundea. Jarraikotasuna eta hausturak

Hiru problematika zehatz landu ostean, Soreasu antzokira mugitu ziren ehunka gazteak. Goraino bete zuten aretoa, eta 18:00etan hasi zen saioa. Lehenengo, Euskal Herrian gazte problematikari erantzuteko sortutako gazte antolakundeek eta testuinguruak izan duten bilakaeraren inguruko azalpen labur bat eskaini zuen kide batek. Hala, **une politiko bakoitzak antolakundeak eta euren praktika nola baldintzatu dituen** azaleratu zen. Jarraian, hainbat gazte antolakundetan militatu izan duten hiru kidek hartu zuten hitza, eta beren bizipenak, testigantzak eta hausnarketak azaldu zituzten jendaurrean. Errepresioaren eta ilegalizazioaren presentzia nabarmena izan zen mahai inguruan, marrazten ari zen garai historikoaren ispilu.

Sarrera egin ostean, dinamizatzailleak lau galdera luzatu zizkien hiru militanteei. Lehenik, euren militantzia hasi zuteneko **testuingurua** azaltzeko eskatu zien. Lehenak Lizarra-Garazi hitzarmeneko garaiak ekarri zituen gogora, eta **"gainbeheraren aldi"** modura definitu zuen. Bigarrenak, garaiaren berezitasunak aipatu ostean, militanteen **"formakuntza falta"** nabarmendu zuen, gaur egungo gazte militanteekin alderatuz, zentzu horretan "hankamotz" zeudela iritzita. "Unean-unekeo beharrei erantzuteko praktika politikoa" egiten zutela esan zuen, **"abiaduraren aldi"** bezala definitu zuen esperientzian zehar. Beretzat, "kuantitatiboki bada ere, gazte mugimenduaren **gorakada** garaia" izan zen. Hirugarren hizlariak, aldiz, bere militantziaren hastapenean bizi zen **"giro politizatua"** azpimarratu zuen. Giro horretan bizitako "kontzientzia politikoaren esnatzea", itxurazko errealitatearen "atzean ezkutatzen diren botere-harreman eta zapalkuntza hariak ikusteko eta ulertzeko" jakinminarekin lotu zituen. Beretzat, militantzia ez zen bizitzaren eremu bat gehiago, "bizitzaren erdigunea" baizik. **"Errealitatea ulertzeko moduak eta errealitate horri aurre egiteko hautu etiko eta politikoak lotzen gintuen; estatuak eta merkatuak eratutako errealitateari aurre egiteko komunitate efektibo eta afektibo baten parte ginen"**, esan zuen. Faktore horiei egozten die, besteak beste, Euskal Herriko Nazio Askapenaren aldeko borrokaren "iraunkortasuna eta sendotasuna". Horrek, baina, epe luzera alde negatiboa ere izan duela gogorarazi du.

Bigarren galderaren bidez, beren **militantziaren eta ibilbidearen inguruko balorazioa** eskatu zien dinamizatzailleak. Lehen hizlariak "Ezker Abertzalearen noragabe eta gainbehera fase" modura definitu zuen bere militantzia aroa. **"Zurrunbiloa"** izan zen bere hitzetan; **ikuspegi estrategikoa lantzeko ezintasuna eta "garaipenean sinestea" nahasten** ziren garaia. Garai horretan, "gazte antolakundea Nazio Eraikuntzaren estrategia orokorraren mende" zegoela azaldu zuen. Bestalde, hautu horren ondorioz, antolakuntza mailan zenbait akats egin zituztela esan zuen; hala nola, gazte antolakundearen autonomia falta, dirigismoa, gazte mugimenduaren infantilizazioa eta abar.

Bigarren hizlariak atzera begiratzean, testuinguru latz horretan "beste ezer egiteko aukerarik" ba ote zuten galdetu zion bere buruari. "Eusteak eta ahal bezala aurrera egiteak" nahiko lan ematen zuela aitortu zuen: "Gazte problematikari erantzuteko planteamenduak eta ideiak bagenituen arren". Bere ustez, testuinguru horretan planteamendu horiek gauzatzeko **"gaitasun errealik"** ba ote zuten edo ez aztertu beharko litzateke; baina dena den, "aurrera egiteko gaitasuna izatea bera oso modu positiboan" baloratu zuen. Egungo egoerarekin alderatuta, nabarmendu zuen egun

“autodefentsa sareak bezalako planteamenduek arazo errealei erantzuna emateko gaitasuna” dutela, eta beren garaian nabarmena zen oztopo bati konponbidea emateko oinarriak jartzen dituztela; hain zuzen, “gertuko jendea engantxatzeko hizkuntza eta zubiak eraikitzea”. “Salaketak” egitetik harago, “alternatiben eraikuntzari heltzea” falta izan zitzaiela zioen.

Hirugarren hizlariak azaldu zuen **“gauzatu nahi zen proiektua definitzen zuen estrategiarik gabeko garaia”** izan zela: “Gure helburu estrategikoak hitz potoloekin definitzeaz harago, ez genekien zehaztasunez zer zen eraiki nahi genuen hori”.

Bere ustez, **“eraikuntza lerroak gaitasun analitiko, teoriko eta politikoa handia eskatzen ditu”**, eta bere buruari galdetu zion egun ere horretarako gaitasunik ba ote dagoen. “Garai horretan behintzat, ez dut uste halakorik zegoenik”: “Gaur egun, sektore batzuk gaitasun horiek lantzeko saiakeran daudela dirudi”, gehitu zuen. Taktika eta strategiaren arteko orekari ere egin zion erreferentzia; **koiunturaren larritasunari** erantzuteko beharra zela-eta, praktika politikoa “erresistentzia” praktika izatera mugatu zela esan zuen, epe motzeko “ikuspegi pragmatikoa” gailendu zelarik. Formakuntza gabeziari dagokionez, “balio duen formakuntza”, **“estrategikoa”** soilik dela adierazi zuen, “formula abstraktuetatik urrun, estrategia jakin bat eguneroko praktikaren bitartez aurrera eramateko beharrezko gaitasunak garatzen dituen bakarra” delako. Gabeziak gabezia, beren militantzia “serioa” eta “diziplinatua” zela gogorarazi zuen: “Egiten genuen guztiak perfektua izan behar zuen, eta horregatik, eginkizunik txikiena ere oso seriotan hartzen genuen”. “Pentsatzen, egiten eta esaten” zuten oro “sintonian” zegoela azaldu zuen, eta **“barne-mailako koherentzia** handiz artikulatutako diskurtsoa” izatea positiboa zela. **“Diskurtso zuzena**, argia, argitzailea eta erradikala (errealitatearen erraiak agerian jartzen zituena)” erabiltzeak, nortasun propioa emateaz gain, “potentzialitate politiko handia” ematen ziela uste du. Azken urteetan “diskurtso propio hori zaindu, egokitu eta sakondu beharrean, jende gehiagorengana iristeko jolas diskurtsiboetan” erori izanak “galera handia” eragin diela dio. Era berean, “segurtasuna bereziki” zaintzen zutela ere azpimarratu zuen, “etsaiaren atzaparrak oso gainean” sentitzen zituztelako. Beretzat, ordea, horrek guztiak borroka komunitatea gehiegi “gogortzea” ekarri zuen, eta ondorioz, komunitate “efektibo eta afektibo” horretan, arlo afektiboak edo “emozionalak”, **efektibo edo “politikoari” gain hartu** ziola susmatzen du.

Hirugarren galderan, **2008. urtean ireki zen garaia**ren inguruan galdetu zien dinamizatzailleak. Lehen hizlariarentzat “harridura” garaia izan zen, eta **testuingurua ulertzeko zein ekarpenak egiteko “gaitasun falta eta ezintasuna”** sentitzen zituela esan zuen. Antzeko egoeran zeuden “borrokalari asko”, “zereginik ez zegoela

pentasatuta etxera joan izana” antzeko sentimenduen ondorioa izan daitekeela uste du. Hala, “egungo egoeratik begiratuta”, iragan aroa “borroka ezaren estrategia aldaketa” modura definitu zuen. Bigarren hizlariak ere “testuingurua irakurtzeko gaitasun eta ezintasuna” aipatu zituen. Hala ere, “gure motxila pisutsua den arren, belaunaldi berriek jauzi kualitatiboa eman dutela” uste du. Beretzat, Nazio Eraikuntzaren estrategian “alternatiben eraikuntzaren lerroa garatzea” baztertu zuten, eta horren ondorioa da belaunaldi berriek hartu duten lan-ildo.

Hirugarren hizlariak “ulergaitza” egin zitzaion ziklo aldaketa modura definitu zuen iragan garaia. Hiru gakoren baitan egin zuen analisisa. Alde batetik, **“politikaren heriotza”** ekarri duen ziklo gisa definitu zuen aro berria. Joseba Sarrionaindiaren hitzak ekarri zituen gogora: “Sistema demokratikoetan estatuek erabakitzen dute nork, noiz, non eta zer erabaki”, eta beraz, itxuraz erabakiguneak diruditen espazioak herritarren esku dauden arren, funtsean, gune horiek erabat “antzuak” dira. “Demokraziak baimentzen dituen eremuetan ez dago erabaki esanguratsu sakonik hartzeko aukerarik”. Hala, esan zuen Euskal Herrian ondo ikasia dugula estatuek “ahalegin berezia egiten dutela beren burua edota beraiek zaindu behar duten botere-sistema aldatu edo auzitan jarri dezaketen proposamen politikoak neutralizatzeko, asimilatzeke edota deuseztatzeke”. Hori dela eta, **“jardunbide politikoa sistema demokratikoak baimentzen dituen eremuetara mugatzeak, politika errealarari ateak ixten dizkiola”** adierazi zuen. Bere ustez, hori da gaur egun gertatzen ari dena. Horrek, asmo iraultzailea duen jardunbide politiko orotan ondorio latzak eragiten dituela uste du: despolitizazioa, desaktibazioa, etsipena eta politika egitera ausartzen diren gazte ero berrien kriminalizazioa. Bestalde, gazte antolakundea **“mundura salto egin nahian ia mundura saldu”** ez ote zen galdegin zuen. Irekitzen ari zen errealtate berria sakonki aztertu eta horri egokitutako posizio politiko sendo bat hartzeko prestatu baino, “jendearengana iristeko” komunikazio estrategia garatzen asmatzeko inbertsio indartsu bat egin zela uste du. Hala, “jende gehiagorengana iristea” eta kuantitatiboki indartzea lortu zuten, eta hori beharrezkoa zela uste badu ere, kualitatiboki kostu politiko nabaria izan duela esan zuen. Bestalde, **komunitateari** egin zion erreferentzia berriro: garai horretan, aurrez aipatutako lotura negatiboa bereziki nabarmendu zela uste du, guztiaren gainetik, “bat eginda” aurrera jarraitzeko irizpideak, bestelako irizpide kritiko edota politikoei aurre hartu ziela ikusten du orain.

Azkenik, mahai inguruan azaleratutako guztiaren sintesi bat egiteko eskatu zieten hizlariari, baita aurrera begirako erronken inguruan zertzeladak emateko ere. Lehen hizlariarentzat, **“askapen mugimendu sozialista eta hegemonikoaren beharra”** dago mahai gainean, eta “horren aldeko hautua eginda dago jada: estrategia, iparrorratza, jomuga argia da; **Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza**, Euskal

Herriko langileriaren dominazio eta zapalkuntza egoeren konponbide integral gisa". Bigarren hizlariak **"arazo errealei konponbidea emango dieten tresnak sortzea"**, langileriaren komunikazio politikorako eta "mugimendu sozialista hedatzeko" bide eraginkor modura ulertzen du. Biek ala biek, **"gaurdanik etorkizuna eraikitzea"** galdegin zuten, teoria praktika bilakatuz. Bigarren hizlariak, beren garaian modu egokian erabiltzen zuten "kontrabotere" kontzeptua estrategia sozialistaren baitan gauzatzean jarri zuen enfasia. Hirugarren hizlariak "bizi dugun garaia eta aurrean dugun erronkaren kontzientzia" hartzearen ezinbestekoasunari egin zion erreferentzia, eta **"iragana, etorkizunaren proiektiorako erabilgarriak diren gakoak ulertzeko aztertu"** behar dela azpimarratu zuen.

OTSAILAK 15, LARUNBATA

Prozesu sozialista

Larunbatean 10:30ean hasi zen prozesu sozialistaren inguruko saioa, langile mugimenduko bi kideren eskutik. Hitzaldiaren helburua "prozesu sozialistaren inguruko gako kontzeptual eta politikoen argipen bat" egitea zela azaldu zuten; hau da, **"prozesu sozialista zer den eta zer ez den"** argitzea. Hiru zatitan banatu zuten hitzaldia: **ziklo aldaketaren ezaugarritzea, prozesu sozialistaren ezaugarritzea, eta politika egiteko formak.**

Lehen zatian ziklo aldaketa definitu zuten, **"militantzia ereduan eta bereziki planteamendu estrategikoan belaunaldi arteko haustura"** eragiten duen aldaketa dela gisa. Beraz, ezaugarritze politikoa du. **"Klase ertainen deskonposatze prozesuari lotuta"** dagoela ere nabarmendu zuten, "mundu mailako krisialdi testuinguruaren ondorio ekonomiko, politiko eta kulturala" delako, eta "elementu horiek guztiak kontuan hartzen ez dituen anailisia antzua" dela azpimarratu zuten.

Euskal Herriari dagokionez, hizlarien hitzetan, ENAMek egin duen 50 urteko borroka zikloaren amaieraren "emaitzak eta hausturak" ezaugarritzen du ziklo politiko berria. **"Ondare"** hori jaso dugula eta "kritikoki **berrikusi**" beharra dugula adierazi zuten, "kontzeptu politikoak testuinguru berrira egokitzeko eta akatsetatik ikasteko".

Ziklo politikoa ezaugarritzeari ekin zioten jarraian. Azken hamarkadetan gauzatutako estrategiak **"aliantza interklasista eta aliantza politika"** dituela oinarri

azpimarratu zuten. ENAMek “nazio auzia eta klase problematika ebazteko gako garrantzitsuak” mahaigaineratu dituela gogorarazi zuten; “antolakuntza gaitasun handia” erakutsi du “kale mailan politika egiteko”. Baina, era berean, “burgesia txikiaren eta langile klasearen estratuen arteko aliantzan” oinarritutako estrategiak azken urteetan jasan duen aldaketarekin, **“proletalgoaren potentzia politikoa blokeatuta”** geratu dela azaldu zuten. Egun, ondare horren gidaritza daraman EH Bilduren programa politiko zein ekonomikoak islatzen du hori guztia. “Aliantza interklasistari eutsiz, langileriaren goi kapen politika” egiten diharduela “nabarmena” da, hizlarien arabera. Hala, **“erroko aldaketak baztertuak”** izan direla esan zuten; horren isla modura, etxebizitza problematikan, genero problematikan edota lan esparruan “proletalgo berriaren beharrei lekurik ez zaiela egiten” aipatu zuten. “Aurreko zikloan politikoki aktiboa izan den zein izan ez den masa sozial handi bat ziklo berrian kanporatua” izan dela esan zuten, nahiz eta proletarizazio orokortuaren testuinguruan gauden, eta horrek “politika egiteko modu horren bideragarritasun eza” mahaigaineratu duen.

ENAMen fase historikoen berrikuste labur bat egin ostean, “paradigma interklasistaren aroa, ari dela” **hitzarmen sozial interklasista europarraren aroa, desagertzen** azpimarratu zuten, eta hala, gero eta ugariagoa den proletalgoak “bere burua defendatzeko beharra ikusteko” baldintzak sortzen direla esan zuten. Hala ere, “azterketa autokritiko serio bat egiteak, azterketa teorikoak, koiunturalak zein estrategikoak egiteko gaitasuna eskatzen du” hizlariantzat. Giltzarri gisa, teoriaren garrantzia azpimarratu zuten. Finean, ziklo berrian egin beharrekoa **“haustura integrala”** egikaritzea dela azaldu zuten. Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza; baldintza ekonomikoen inguruko lanketarekin, aldaketa kultural sakonekin, iruditegi politikoa usadio klasikoaren arabera berreskuratzearekin, edota militantzia ereduaren ezaugarritzea egitearekin lotu zuten.

Bigarren atalean, hain zuzen, prozesu sozialistaren ezaugarritzean, hainbat alor landu zituzten. Lehenik eta behin, “analisi autokritikoak orain arte aipatutakoa baino gehiago” barnebildu behar duela esan zuten, **“sozialismoaren historia politiko globala”** baita, euren hitzetan, kritikoki aztertu behar dena. **“Botere burgesaren egungo konfigurazioa** eta horrek dituen joerak aztertzea ezinbesteko zeregina” dela ere azpimarratu zuten, “non eragin behar dugun” jakin ahal izatea “jokaleku politikoan aritzeko premisa” baita hizlarien arabera. Botere burgesaren ezaugarritze orokorra mahaira atera zuten, prozesu sozialistaren garapenean “klase borrokak zentralitatea” duela ondorioztatuz. “Klase kontzientzia ez dela automatikoki eskuratzen”, eta beraz, botere burgesarekin “haustea” ere ez dela “modu automatikoan” gertatuko azaldu zuten, **“eremu sozial guztietan proletalgoaren**

aldeko esku hartze politikoaren beharrezkotasuna” aldarrikatzeko. “Despolitizazio orokortuaren aurrean, bizitzako arlo guztien politizazioa” galdegin zuten, eta “militanteen adostasun orokorraren gainean eta borondate indibidualaren baldintzapean” gauzatuko den antolaketa ereduaz mintzatu ziren.

Hala, prozesu sozialista eta sozialismoa kontzeptualizatu zituzten hizlariak. Lehena, **“borroka historiko eta dialektiko”** gisa definitu zuten, proletalgoaren jaio zenetik garatu den prozesua den heinean, eta testuinguru eta ziklo bakoitzean forma ezberdinak hartu dituen heinean. Sozialismoa, aldiz, **“proletalgoak botere politikoa eskuratzeko progresiboki, estrategikoki, garatzen duen borroka”** modura definitu zuten, “territorializazio graduala, proletalgoaren zatiketa gainditzea eta masa antolakuntza” premisa dituen. Hori guztia garatzeko formula, edo “proletalgoaren batasun estrategiko eta taktikoa” gauzatzeko modua **“zentralismoa”** dela esan zuten. “Burokrazian” eroriko ez den zentralismo baten nolakotasunaren hainbat zertzelada eskaini zituzten jarraian; besteak beste, formakuntza sistematizatzea edota lan manuala eta intelektualaren arteko banaketa desagerraraztea. Zentzu horretan, zentralismoa “ekite politikorako gako” bezala definitu zuten, “proletarioei zatituta ageri zaigun errealitateari, komunean ditugun baliabideen bidez erantzuteko antolakuntzarako beharrezko tresna” delakoan.

Bestalde, bigarren blokearen barruan, “arazo partikularretan eta zapalkuntza modalitate zehatzetan identifikatu daiteken erro komuna” zehazteko saiakera egin zuten. Hala, **“botere burgesaren teoria integratua”** garatzeko beharra, **“programa politiko proletarioaren baitan antolatzeko”** beharra, “gaitasun gutxien dituzten maila sozialen berdintasun osoa bermatzeko” beharra, “problematika errealei erantzuteko tresnak garatzeko” beharra, “antolakuntza defentsiboaren” beharra eta beste hainbat lan-lerro aipatu zituzten. Horretarako, sine qua non baldintza da “proletalgoaren independentzia politikoa” bermatzea: “Militante sozialista orok erabakien gaineko ebazpen kritikoak egiteko ahalmena eta bermeak izango dituen antolakuntza eredu bat” garatzeko beharra azpimarratu zuten. **“Kritikotasun antolatu”** modura definitu zuten azken ideia hori.

Azkenik, ziklo politiko berrian gauzatu beharreko politika moldeak landu zituzten hizlariak, modu orokorrean. **“Proletalgoa fronte guztietan antolatzea”** litzateke erronka politiko nagusia hizlariarentzat. Zentzu horretan, proletalgoaren “antolakuntza eredu historikoaz” mintzatu ziren, ohiko ulerkeretatik “kualitatiboki” ezberdina dela adieraziz. Militantzia sozialista **“ardura historiko”** gisa definitu zuten, aurrez aipatutako “adostasunaren eta borondatearen artikulazio” modura.

Koiuntura ekonomikoaren aldaketa globala eta sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa

Prozesu sozialistaren inguruan mintzatu ostean, Euskal Herriko ziklo politikoaren inguruko solasaldia izan zen Soreasun. Langile mugimenduko hiru kidek hartu zuten hitza, "ziklo politikoa ulertzeko eta aztertzekeo bitarteko analitikoak" mahaira ateratzeko. Bi bloke nagusitan banatuko zuten mahai ingurua: batetik, klase borrokaren ezaugarritzea egungo mundu mailako krisialdi testuinguruan, kapitalaren ahulguneak identifikatzeko eta Euskal Herrian borroka sozialista antolatzeko elementuak eskuratzeko; eta bestetik, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoaren gako nagusiak. Beraz, 'pentsamendu estrategikoa garatzeko elementuak eskaintzea' nahi izan da.

Hala, "krisia" ezaugarritu eta definitu zuten lehenengo, eta gako interesgarriak mahaigaineratu zituzten hiruek. **Ekoizpen indarren eta ekoizpen harremanen** definizio zehatz batekin hasi ziren, eta bi kontzeptu horien arteko harremanean bigarrenak duen nagusitasunaz aritu ziren. Modu horretan defendatu zuten "klase borrokaren ezinbestekotasuna". "Sozialistontzat **ikuspegi historikoa** ezinbestekoa" dela argudiatuta, **ekoizpen indarren garapena** "etengabea" denez, garapen horren "ezaugarritzea edo mamia" une historiko zehatz bakoitzean egituratzen diren "ekoizpen harremanen nolakotasunak determinatzen duela" ebatzi zuten. **Indar produktiboen eta ekoizpen harremanen arteko "talka"** ere "ezegonkortasun" une modura definitu zuten. Beraz, gizakien historia "indar harremanek" ezaugarritu dutela adierazi zuten: "**Indar harremanek determinatutako eszenatoki politikoan gauzatzen da testuinguru soziala**, eta testuinguru osoaren gaineko ikuspegi objektibo horren gainean antolatu behar dugu politika proletarioa".

Krisiaren ideian sakontzeko, krisiaren **oinarria "historikoa"** dela eta "adierazpen ekonomikoa krisi historiko horren gainean gauzatzen dela" azaldu zuten. Krisi kultural orokortuaren testuinguruan agertzen ari diren "**adierazpen ekonomikoak**" zerrendatu zirtuzten: langabeziaren kronifikazioa, lan finkorik ez edukitzea bezala ulertuta; erosteko ahalmenaren beherakada progresiboa eta iraunkorra; pobrezia absolutuaren gorakada; kontrol sozialaren gorakada; kode penalen erreformak; osasungintza unibertsalaren desegitea; elikagaien kaskartzea; burokratizazioa; buruko desoreken hedapena; askatasun politikoen desagerpena; etxebizitzaren arazoa (EAEn 45 urtetik beherakoen %70ek ezin du gurasoen etxetik alde egin),

emakume langileen babesgabetasunean sakontzea; adin piramidearen desoreka; edota inmigrazioaren auzia.

Bestalde, "ugaritasunak sortzen dituen **kontraesanak aztertze eta ebazteko beharra**" ere aipatu zuten, "**krisiaren ikuspegi distortsionatuei kritika**" egiteko beharra azpimarratzearekin batera. "Gainekoizpena eta azpikontsumoa" auzi modura ulertzeak, krisiaren barne logika ulertzea oztopatzen duela ere esan zuten. Hala, indar produktiboen eta ekoizpen indarren arteko harremanari heldu zioten berriz, "**makineriaren auzia**" azaltzeko, eta ekoizpen modu kapitalistan makineriaren baitan egikaritzen den "kontraesana" azaltzeko: lan denbora aurrezteko gaitasuna duten gailuek, lan esplotazioa luzatzen eta biziagotzen dute. Modu horretan, "langile klasea lan banaketan espezialitzen" eta "atomizatzen" da.

Krisialdien osteko "**proletarizazio orokortuaren**" eta **ofentsiba kapitalistaren** artean dagoen harremana ere landu zuten. "Lan merkatuaren beharren arabera lanaren berregituraketarako", beharrezkoak dira "mugikortasun" baldintza batzuk. Hala, "**harreman gune komunitario guztiak desegiten**" ari direla azpimarratu zuten, "atomizazioari" bide emanez. horrek guztiak, baina, "politika proletarioa egiteko aukerak irekitzen dituela" ondorioztatu zuten.

Analisi horien bidez eraitsi nahi izan zituzten prozesu sozialistaren baitan lan egiten duten eragile eta norbanakoei egin dizkieten zenbait kritika, "**utopismoa**" edota "**infantilismoa**" leporatu dizkietelako. "**Goranzko kapitalismoaren aroa amaitu**" dela eta **sozialdemokrazia "bezerorik gabe"** gelditzen ari dela adierazi zuten: "Klase ertainen desegiteak proletarizazio orokortuarekin duen harreman zuzenak berehalako ondorioak ditu". Testuinguru horretan, "langile aristokraziaren interesen arabera antolatutako programa politikoak zentzu gutxi" duela esan zuten, "aurreko zikloan **erreformen bidea ahalbidetzen zuten baldintzak desagertu** egin baitira". Hala, "joera politikoaren azterketak, politika egiteko aukera errealei bide ematen diela" argudiatuta, utopismoaren kritikak "besterik gabe" zentzua galtzen duela ondorioztatu zuten. Dena den, "proletalgoaren historian langile aristokraziarekin izandako talkak etengabeak izan direla eta goizetik gauera ez direla desagertuko" ere nabarmendu zuten.

Ziklo historiko berri honetan, "burgesia **langile klase berri bat ekoizteko erreformak**" gauzatzen ari dela azaldu zuten, baita "prozesu horren hastapenean" gaudela ere. Geopolitikaz eta geoestrategiaz mintzatu ziren hizlariak, egun "erabaki politikoak hartzeko gaitasuna duten bi bloke politiko nagusi agertzen" zaizkigula adieraziz: Txina eta AEB. Indian edota Errusian "klase borrokak hartzen duen bilakaera ere

ezinbestean aztertu beharko dela” esan zuten, “hori izango baita **gudu-zelai** nagusia”. Nazioartean ebazten den politikari “ikuspegi politiko nazionalistak” egiten dion “kaltea” ere aipatu zuten. **Nazionalismoa “erabakimen politiko espazio nazionalera mugatzen duen mundu ulerkera”** modura definitu zuten. Ikuskera horrek egungo joera politikoen azterketarekin talka egiten duela eta “emaitza gutxi” eman ditzakeela ondorioztatu zuten. Kide bat argia izan zen; “marko nazionalean erabaki garrantzitsuak hartzea ezinezkoa dela” nabarmendu zuen. Horren ondorio logiko gisa adierazi zuten “marko horretara mugatzen den haustura demokratikoa planteatzeak gaur egun balio gutxi duela”, lurralde-hedapen handiagoa beharko lukeelako.

Bestalde, azaldu zuten estrategia sozialistarako ezinbesteko premisa dela proletalgoaren independentzia politiko eta autoantolaketa. Egoera politiko nazionalari erreparatu ostean, **“proletalgoaren bizi beharren atabera artikulatuko den antolaketa defentsiboa”** identifikatu zuten abiapuntu modura.

Bigarren blokean, aldiz, estatuaren eta balio formaren arteko harremanaren inguruan aritu ziren. Sozialismoa, harreman eredu horri kontrajarriko zaion **“prozesu etengabea”** dela ebatzi zuten. Lurralde-mailari ere erreferentzia egin zioten; Euskal Estatu Sozialista **nazioarte mailan** soilik gauzatu daitekeela mahaira atera zuten, eta nazioarteko prozesu horretan izango lukeen paperaren inguruan hitz egin zuten. “Bitartekaria edo tresna eraginkorra” izan daitekeela aipatu zuen hizlarietako batek.

ENAMaren strategiaren nolakotasuna aztertzen ere saiatu ziren, eta **krisi kapitalista globalak “haustura gauzatzeko jarri dituen baldintzak”** identifikatu ostean, “ekinbide sozialistaren” inguruan hitz egin zuten. Aurreko hitzaldiko hainbat ideia barnebidu zituen kontzeptualizazio batekin amaitu zuten saioa. **“Lan gaitasuna kolektiboki, proletalgoaren beharrei erantzuteko antolatzea”** da gakoa euren ustez, “antolakuntza, lan banaketari eta behar politikoei erantzuteko bitarteko” gisa pentsatu behar dela argudiatuta. Proletalgoaren klase kontzientziari erreferentzia egin zioten amaieran, “antolakuntza eredu horrek proletalgoaren pedagogia politiko bermatu” behar duela azpimarratuz. **“Gauzak egiteko modu sozialista, orain indarrean dagoena baino eraginkorragoa dela”** erakustea giltzarri modura aipatu zuten, **“ikasten baita borroka dela bide bakarra”**. Topagunea horretarako “laborategi” bat izan dela esan zuten, eta antolatzaileak zorionduz amaitu zuten azken hitzaldia.